BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2151

9/2013 EBAZPENA, apirilaren 18koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, «zenbait establezimendutako Kanpoko Larrialdi Planak onartzeko» Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia argitaratzeko xedatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2013ko apirilaren 9ko batzarrean, «zenbait establezimendutako Kanpoko Larrialdi Planak onartzeko» erabakia hartu zuen. Behar bezalako publikotasuna izan dezan, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzen Aldizkarian argitaratzea «zenbait establezimendutako Kanpoko Larrialdi Planak onartzeko» Erabakiaren testua (ebazpen honen eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 18a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN APIRILAREN 18KO 9/2013 EBAZPENARENA

ZENBAIT ESTABLEZIMENDUTAKO KANPOKO LARRIALDI PLANAK ONARTZEKO ERABAKIA

Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 14.3 artikuluan xedatzen denez, plan bereziak egingo dira metodologia tekniko-zientifiko zehatza eskatzen duten arrisku zehatzei aurre egiteko, Herri Babeseko Oinarrizko Arauan jasotzen diren eta Autonomia Erkidegoan eragina duten arriskuen kasuan batez ere, eta arriskuen analisiak emandako emaitzen arabera, betiere.

Plan horien artean daude, ondoko arauetan barne hartutako establezimenduentzat landu beharreko kanpoko larrialdi planak: 1254/1999 Errege Dekretua, uztailaren 16koa, substantzia arrikutsuak tarteko diren istripu larrien berezko arriskuen kontrol-neurriei buruzkoa; 1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa, istripu larrien aurrean egin beharreko kontrolerako eta planifikaziorako Herri Babeseko Oinarrizko Jarraibideak onartzekoa, eta 34/2001 Dekretua, otsailaren 20koa, substantzia arrikutsuak tarteko diren istripu larrien berezko arriskuen kontrol-neurriei dagozkienez organo eskudunak zein diren zehazten duena.

Arau horien arabera, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek, industrialarien laguntzarekin, Kanpoko Larrialdi Plan bat prestatuko dute, gerta daitezkeen istripu larriak aurretik aztertu, sailkatu eta ebaluatu eta gero, horien ondorioak aurreikusteko, eta, hala dagokionean, arintzeko. Plan horrek ezarriko ditu, batetik, babes-neurri egokiak, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak, eta, bestetik, esku hartu behar duten agintariak, organoak eta zerbitzuak koordinatzeko eskema.

Larrialdi Planak prestatzen, inplikatutako hainbat erakunde eta eragilek parte hartu dute, zeinak Euskadiko Herri Babeseko Batzordeak 2012ko irailaren 27an emandako aldeko txostena eta Babes Zibileko Batzorde Nazionalaren 2013ko martxoaren 13ko Erabakiaren bidez hartutako dagokion homologazioa eskuratu baitute.

Horrenbestez, Segurtasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak, aztertu eta gero, hau erabaki du:

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Establezimendu hauen Kanpoko Larrialdi Planak onartzea:

– Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. (Laudioko lantegia).

– Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. (Amurrioko lantegia).

– General Química, S.A. (Lantaron)

– Momentive Specialty Chemicals Ibérica, S.A. (Lantaron).

– Bilboko Portu Autonomoa (SEVESO establezimendu hauek barne hartzen dituen eremua):

* Acideka, S.A. (Zierbena).

*Bahía de Bizkaia Gas (BBG) (Zierbena).

*Befesa VA, S.L.U. (Zierbena).

*CLH, S.A. El Calero (Santurtzi).

*Esergui S.A. (Zierbena).

*Repsol Butano S.A. (Santurtzi).

*Terminales Portuarias S.A. (Tepsa) (Zierbena).

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak aginduko du erabaki hau euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea».